

Gorrotoa

Xabier Izaga
Gonzalez

Aste honetan ukabilkada biren arteko alde ikaragarria nabarmendu du Iñaki Iriondok egunkari honetan. Mota bertsuko gertakari biren oihartzuna, trataera. Alderdiek, hedabideek... eta fiskalek zeri erreparatzen diote horrelako kasuetan? PPko kide baten aurkako ukabilkada gorroto delitua dela diote. Beste lagun bati «marikoi zikina» esanez ukabilkada eman izana ezin gorroto delitua izan, ezta delitua ere, alderdien, hedabideen eta fiskalaren begietan ez baita gertatu.

Nik ez dut uste gorrotoa delitua denik, edo halakotzat jo beharko litzatekeenik.

Hogei urte dira Unai Romano Guardia Zibilak eraman eta egun batzuk geroago erretratatuaren identitatea beste azalpenik behar ez zuen argazki bat agertu zela. Uste izatekoa da infernuan ez zuela izango ez gorrotoaz ez amodioaz pentsatzeko gogo handirik, baina bere burua ispiluan ikusi zuenean sentimen bat baino gehiago bildu bide zitzaion gogorra: beldurra, tristura, babesgabetasuna, amorrua... eta gorrotoa. Delitua ote da hori?

Besterik da gorroto horrek zure bizi-tza eta zure jokaera goberna ditzan uztea. Horren ondorioa ere jasan du jende

askok Euskal Herrian eta beste leku askotan. Izan ere, gorrotoak gidatu ditu Espainiako faxistak gerra baino lehen, bitartean eta ondoren ere.

Espainiako Zigor Kodeak gisa honetan definitzen du, gutxi gorabehera, gorroto delitua: arraza, sexua, erlijioa, desgaitasun intelektual edo fisikoa, joera sexuala nahiz beste ezaugarri bat partekatzen duen edo hala sumatzen den giza talde bateko kideen aurkako arau-haustea.

Lehengo eguneko ukabilkadak beharbada mota berekoak dira, baina oso desberdinak alderdi, hedabide eta fiskal gehienaren begietan. •

Lubakiak

Koldo Sagasti

Zabalganan gertatu zen, Gasteizko auzo gazte eta populatuenetako batean, orain dela pare bat aste. Hiritar batek salatu zuen sare sozialetan hamabi urteko alabak jazarpena pairatu zuela auzuneko jolas parke batean ostadarraren koloretako poltsa bat eramateagatik. Itxuraz ez zen gazteak leku berean eta arrazoi beragatik nozitzen zuen lehenengo erasoa eta, beldurraren beldurrez, utzi egin zion poltsa kalera ateratzeari. Geroztik, aita, suminduta, gora eta behera ibili da auzoan LGTBI mugimenduaren ikurra soinean hartuta eta dei egin die auzokideei berdin joka dezaten. Azkenean, deialdiari erantzunez,

Ikusguneak (Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokia) eta Zabalgana Batuz auzo elkarteak festa giroko elkarretaratze koloretsua antolatu zuten pasa den ostegunean, gertakizunen leku berean, «gure kaleetan gorrotoarentzako tokirik ez dagoela aldarrikatzeko». Zabalganakoa, tamalez, azkenaldian ugaritu diren gorroto eraso horietako beste bat besterik ez da.

Zorigaiztoko jazarpenaren aste berean 85 urte bete ziren faxistek Isaac Puente mediku anarkista Gasteizko kartzelatik atera, erail eta hilobi klandestino batean desagerrarazi zutenetik; Pancorbo inguruan, diotenez. Puentek sona handia lortu zuen Iberiar penintsula osoan Komu-

nismo Libertarioaren Manifestuaren egile izateagatik; baina baita Gasteizen ere, naturismoaren sustatzailea izateagatik, eta besteak beste, elkarretaratze nudista publikoak antolatzeagatik. Bere erailketa baino egun batzuk lehenago Millan-Astray jeneral kolpista bera izan zen hirian, militante antifaxisten aurkako ondorengo segaden txinparta pizten.

85 urte geroago, Maeztuko medikua ditzan hobiak bide bazter ezezagun batean segitzen du, baina orduko lubakiek irekita diraute. Legionarioaren oinordekoak Legebiltzarrean, eta gu kalean beldurrari hortzak erakusten, kolorez eta irudimezez. Nor lubakiaren bere aldean. •